

Zentro okupazionalaren zerbitzua ezgaitasuna duten pertsonentzat.

Prestazio mota: Bermatu gabekoa.

Baliabide mota: Eguneroko arreta zerbitzua (egunekoa).

Baliabidearen xedea: Establezimendu berariazko batean emandako zerbitzua, merkatuko lan jarduera batean, dela enplegurako zentro berezian dela enpresa arrunt batean, integratzerik ez duten pertsonen jarduera okupazionalako programak nahiz garapen pertsonal eta sozialekoak emateko.

Onuradunak: 18 urtetik 65 urtera bitarteko pertsonak, ezgaitasun fisiko edo/eta adimenekoa dutenak eta/edo garuneko lesioa.

Jasotzeko baldintzak:

- %33ko edo hortik goitiko elbarritasuna aitortua izatea.
- Laguntza eskatu aurreko urtean Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziak emandako egokitasun txostena.

Zerbitzua irekita: Hamaika hilabete urtean, lan egun guztietan.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Garapen pertsonal eta sozialeko jarduerak: egunero.
- Jarduera okupazionalak: astean behin.
- Lanaren aurreko jarduerak: egunero.
- Arreta psikologikoa eta soziala: jarraipeneko, sei hilean behin.

Ebazteko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Bai.

Jarduteko eremua:

Nafarroako Foru Komunitatea.


